

## MOZORROAK

1

Zelan leiteken gauza bat izan  
eta beste bat agertu,  
zelan leiteken pertsona dan bat  
horrenbestean okertu!  
Jantzi mila mozorro,  
pizti ala momorro?  
Badaezpada aztetu.  
Hor azpikoa nor eta zer dan  
ezetz lehenengoan zertu.

2

Lehenago Aste Santuan ziran  
mozorrozko borroruak,  
arma ta guzti zarata haundiz  
santuzale anderuak.  
Ez larritu, Pilatos,  
ordezkoa badatoz:  
hor txandako bezeruak:  
Baztar guztiak garbitu nahirik  
hor dabilza aingeruak

3

Ustekabean agertu jaku  
santuzale errazia,  
eskubideak zaintzeko bada  
burruka ta garraxia.  
Batzuek mozorroan,  
besteak lozorroan...  
Hau dok hau demokrazia!  
Badago inor konpondu nahirik  
noik astindu orrazia.

4

Lehenago ba zan Aste Santuas  
mozorro baltzen ohitura,  
santu ta santak hartzen eutsuen  
mamu batzuen itxura.  
Mozorroak ez dira  
gauza onen distira;  
dakarrena da tristura.  
Mozorro danak kenduta behingoz  
sartu gaitazan Pazkura.

5

Mozorro edo antzekoren bat  
jarri eutsoen Jesusi,  
nortzuk ziran ta zertan ebiltzan  
ez egiala ikusi.  
Ondoren jo ta dale  
Jainkoa nahiz eskale,  
Barrabas bego nagusi!"  
Mozorro batzuk jarri ezker  
ezer ez dago itsusi.

6

Gure artean aintxinatik da  
halamoduzko jolasa:  
Begietatik zapia jarri  
eta "emoiozu traza".  
Gixajoa hasarre,  
eta besteak barre;  
eta sarri jo ta pasa...  
Baina bizia jokoan bada  
hauxe komeri demasa!

7

Alde batetik iluntasuna  
eta bestetik guzurra,  
askotariko zapi mozorroz  
estaltzen da gaur maltzurra.  
Ez diranak zabaldu,  
ta diranak zapaldu...  
sartu ikara bildurra.  
Mozorroetan errez saltzen da  
mamin trukean hazurra.

8

Egoera hau zaharzarorako  
ez al da astunegia?  
gauzak diran lez ikusteko da  
zentzuna eta begia.  
Ken gorroto kisketa,  
jarri alkarrizketa  
ta zaindu gizalegia;  
ezin da saldu edo truk egin  
zentzuna eta egia.